Lurra

LOTAZILLA 1962

EMEN "RADIO COTE-BASQUE"

TXILLARDEGI gure idaz-le argiari Radio Coté-Basque'en egin zioten galde-erantzuketa da au.

—Gure asmoa mamiturik, hemen dugu egun gurekin Txillardegi jauna, zuentzako solas bat egiteko gertu.

Alderdi huntako eskualdunek Txillardegi sobera ezagutzen ezpaitute, on izanen da hasteko galdera batzuk egitea bere biziari buruz.

Egun on, Txillardegi. Nahiko duzia zure berri hitz gutxitan eman? Alegia: nongoa zaren, zenbat urte dituzun, eta abar.

TX. — Bai, bai. Horiek erantzuten ez da zailla. Donostia'koa nauzute; eta hogei ta hamabi urte ditut. Eskuararen alde entseatzen niz beti; eta, horrela, zenbait gauza izkiria tu ditut iadanik.

—Eskualdun berri omen zaitugu. Egia dea?

TX. — Hala da. Nere gurasoak eskualdunak izanik ere, erderaz hitzegin didate, beste anitz etxetan bezala. Hortarik zetorren ez-jakin harek min izigarria emaiten zidan bihotzean; eta, hartara, eskualdun bilhakatzea deliberatu nuen hemezortzi urte nituelarik.

Eta eskualdundu egin nintzen.

—Bada, nekeza omen da hori...

TX. — Nekezago ikasten da angelesa, nik aginduta. Eta frantsesa ere ez aisago. Kontua hor, bertzetan bezala, nahi izaitea da. Eta nahi izaiteko, lotsa edo ahalke apur bat aski da. Zeren eskuaraz mintzatzen ez den eskualduna ezpaita eskualduna eta ez "euzkotarra" ere. Hemengo eskualdunok ederki erraiten duzuten bezala, "kaskoindu" baita. Hots: erdalduna ezpaita eskualduna, atzerritarra baizik. EZ DAGO EUvKOTARRIK: eskualdun izan, ala erdaldun. Eskual Herria eskualdun egon, ala hil. Horregatik ikasi nuen eskuara.

—Untsa errana da: eskuara galba ladi, fini.

TX. — Hortan nago, bai. Eskualdunik ez? Eskual Herririk ez. Gaiñerateko "xaindamenduak"... gure etsaientzat bai egoki. Ez guretzat.

—Eta, zure hirurgarren liburua zertan da? Ari zirea?

TX. — Bai. Ari naiz. Baiña huntaz beste batean hitzegiñen dugu. Hobe. Oraikoz ez dut gauza handirik egin eta.

—Ederki. Beste batean hitzeginen dugu beharbada literaturari buruz. Ikusi duzia asteleheneko "Basque Eclair" en artikulua?

TX. — Eskuarari buruzkoa?

—Horixe, bai.

TX. — Ba. Ikusia dut. Eta, zoritxarrez, Eskandinabia'ko jakintsuakin bat nator: orai bezala segitzekotan, berrogoi urtetan eskuara hilla izanen da.

—Iritzi hitsa da hori...

TX. — Hitsa, bai; baiñan egiazkoa. Hori uste ez dutenek ez dute sobera pentsatu gure hizkuntzaren heinaz: johan ditezela herrizherri, Bizkai'tik has eta Zibero' raiño; eta gero mintza ditezela. Arras galdua dugu eskuara; eta haurrak nun nahi erderaz ari. Hots: haur horietxek dira biharko gizonak.

—Eskola ez dugu gure.

TX. — Hala da. Ez eskuara eta ez ezer. Ez gira untza ohartzen. Baiña eskola, prentsa, zinema, liburuak, herriko-etxeak, paper eta administrazioneko kontu guziak, dena, erdaraz egiten da. Ez da dudarik. Espaiñiak orai de la hirurogei urte galdu zituen Filipinak. Administrazioa angelesa jarri zen. Eta, egun, Filipinetan, española fini da. Eta hori española, txinoa, bretoina, eta... eskuara ere bai.

—Zein da, beraz, bidea, zure ustez?

TX. — Bidea garbi dago. Barka: baina baratxurizopa berriz asmatu beharrik ez dago. Besteen menpean dauden herriak hizkuntza galtzen dute. Bere buruaren jabe diranak, aldiz, gordetzen. Gallegoa galtzen da; portugesa gordetzen. Halarik ere ia berdiñak dira. Gallegoak, halabainan, Madrid'en eskuetan daude... Portugesak ez.

Eta beste gauza beharrezko bat: eskuararen batasuna, portugesarena bezala, edo edozein tokitakoa. Igandean (eta Jainkoak daki noraiño pozik...) Barkoxe'n izan nauzute, Etxahun'en "pastuala" ikusten. Ba, egia erraiteko, zenbait puntutan ez nuen guztiz untsa konprenitu hango eskuara zoragarria. Eta hau denbora luzea eskuararen hizkera eta modu guziak ikasten eta haztarkatzen iragan ondoren... Horrek min emaiten du. Zeren agirian jartzen baitu egungo eskuararen hein gaistoa. Eskuarak, bere hortan, nola iraun lezake? Ez da posible. Eskualdun guziok bat egin eta eskuara BATEZ mintzatu behar. Bertzela, alperrik da entseatzea. Denbora galtzea bertzerik ez da.

—Ederki, Txillardegi. Zure iritziak, xuxen ala oker, garbi azaldu dituzu.

Entzuleen izenean millesker.

Eta... ez adiorik.

ZARRAK BERRI

Erriaren izenik etzait gogoratzen. Ez dio ajolik. Bestalde, buruan dabilkidan erri onen istorioarekin asko dira.

Palentzi'tik etzan oso urruti; agian ogei edo ogeitabost kilometro.

Erri ontan guda aurretik izan ziran elezioetan ezker-aldekoak etzuten lan aundirik eman. Lasai irabazi zuten eskubi-aldekoak. Ezkertarrak sei boto bakarrik izan zituzten.

Gero guda etorri zan. Badakizute, zertarako orduko negargarrikeriak aitatu?

Palentzi ondoko erri artan "faxixtak" I4 gizon-emakume pusilatu zituzten.

Arritzeko al da gaur egunean zenbait jende bildur izatea? Gizaeraille aietako asko ta asko panpantxo baitabiltz kaletan.

Etzan ori erri batean bakarrik gertatu. Istorio onekin berarekin eundaka dira erriak; eundaka bakarrik ez: millaka.

Ortaz, millaka ta millaka dira zearo beldurturik daudenak.

Eta zer?

Egunen batez, gertakizun aien erantzun - bearra dizutenak, erantzun-bearreko unea datorrenean, aldutenak anka egingo dute, mundua zear sakabanuko dira, batzuk diruten igari, basteak zarpa-zarrak dadizkiotelarik...

Errukarrienak geratuko dira amaika bazterretan...

Guk ez diogu iñori opa guk pasa ditugunak. Pasa gabekoak ez daki zer dan gaua iritxi eta inpernuko etsai guzien bildur izatea, dardar bizian bizitzea...

Kaleko Marmarra

Peru al detik etorri zaigun berri batek dionez, iru obispo al kar artu eta sekulako asmo bikaña artu dute. Peru'n badira noski Elizarenak diran lurraldeak. Lurralde oriek jarriko dituzte obispo oriek nekazarien esku.

Berri bikaña. Guztiz pozgarria. Peru aldeko zenbait nekazari ez ditugu asarre izango.

Bizirik ote dago oraindik Salamanca'ko diputau ura, Lamamie de Clairac edo zalako ura? Bera bizi ezpada utziko zitun ondorengoak.

Urteak dirala, Errepublika garaiean, Jimenez Fernandez Lurgintza-Ministro zala, gauz eder bat egin nai izan zun: "reforma agraria" eraman nai izan zizun aurrera.

Jimenez Fernandez gizarajoa pikotara bota zuten; eskubitarrak joan zitzaizkion gañera zakur amorratuak bezelaxe.

Ordukoa da Madrid'eko "Cortes" etan Lamamie'k esan zun itz bat.

Ez al zitzaion ba bururatu Jimenez Fernandez gizarajoari bere "reforma" aurrera ateratzeko Aita Santuen zenbait agindu aitatzea?

Ori al da Eleizaren dotriña? Galdera Salamanka'ko diputauak egin zion.

Lamamie'k ondoren esan zunez, "dotriña ori Elizarena baldin bada ni "zismatikoa" naiz".

Jimenez Fernandez zakurraren ipurdira bota zuten guzien artean. Andik denbora pitin batera Lamamie ta bere lagunak mendira joan ziran "Erilijioaren eta España'ren alde", eta bazter guziak sutan jarri zituzten.

Peru'ko obispo oriek dirala-ta jakin nai genuke Lamamie edo bere ondorengoak esango dituztenak.

Lurra nekazarientzat baldin bada nola demontre bizi bear dute Lamamie bezelako errukari asko?

Esanak esan, Peru'ko iru obispo orien erabakia txalogarria da. Guztiz txalogarria. Eta España'ko "latifundistentzat" birao bat baldin bada, geienentzat itxaropengarri da. "Latifundista" ez geran guzientzat.

Emendik eta Andik

Nola siñistuko gendun Don Juan errege naiezkoa edo Franko'ren kontra zegolakoa? Franko'ren bizkar bizi izan baita orain arte antziñako España'ko erregearen semea.

Urteko bi milloi peseta aundi pasatzen dizkio Franko'k D. Juan éri. Agian D. Juan éntzat ez da gauz aundirik. Bere lanarekin irabazi bear ba litu besterik esango luke.

Eta aldi berean Franko'k beretik bi milloi oriek emango balizkio... gaitz erdi. Erriaren dirutik ematen baitizkio.

Ara nundik D. Juan Madrid'era baño len erriaren bizkar bizi dan. Eta zergatik Franko ain biotz-zabal? Bestenetik errex ematen dira.

Nola uste dezake D. Juan'ek guzien artean berak egin dezakeala batasuna Franko'ren kontra egun batez buru-belarri eraso balio ets ondoren bere burua Madrid errege ipiñi izan balu...

Ez da ori kontua. Urte guzioietan panpantzo bizi izan da D. Juan. Eta beretik etzetozen dirutatik Franko'k bete dio oparo ganbela. Franko'ren es kutik iritxiko da D. Juan. Madrid'era irixten baldin bada.

Nolaz uste dezake D. Juan'ek "españar guzien batasuna" egin dezakeala? Nola uste dekake "españar guzien" erregea izan ditekela?

Franko-zaleen erregea izango da D. Juan izatekotan. Berarengan, D. Juan'engan, ezin leike besterik ikusi urteak dirala su ta gar erriaren kontra altxa zan gizonaren ondorengoa izan ezik.

Bai al leike besterik

Gu kontra gauzka; Franko'k gaukan beze'axe. Errege naiezkoarekin ez degu ezertxo.

Gero berriz gauza bat dakigu: Franko eta D. Juan berdin-berdiñak dirala. Franko gudaroztea baldin bada, Don Juan ere gudaroztea da...

ERROMAN JON XXIII'GARREN AITA SANTUAK AGINDUTA EGITEN DAN ELIZAREN BATZAR NAGOSIARI BUENOS AIRES'eko EUSKALZALEAK BIALDUTAKO IDAZKIAREN IJEKI EDO KOPIA EMEN AGERTZEN DUGU:

"Buenos Aires'en Azillaren 10'gn 1962'eko urtean.

Erroman ospatzen dan Batzar Orokor Ecumenico Concilio'ko zuzendari ospatzuei, agur.

Buenos Aires'ko EUSKALTZTLEAK gure asabak Amerika zear, beren izkuntz euskeraren bitartez, lortu zuen nortasun aipatuaren jarraitzaleak gera nola bait.

Sortu giñanetik, gure mintzaera eta nortasuna zaintzea izan ditugu elburu. Orra itz gutxitan esanik nor geran gu.

Joso-Kristaren ikasbideak nola erarik onena eman naiean zabiltzenoi, gure naitasun apala agertu nai dizuegu, zuen asmoak bide argi zuzen bat izan dezaten danontzat.

Ludiko bazter geienetako izkuntzak elduko dira aldi ontan. Jos-Kristoren ikasbideen jarraitzalleak egiten dezuen Ekumeniko Concilio ortara; Buenos Aires'ko EUSKALTZALEAK ere agertu nai dizute beren poza gure izkuntz ederraren bitartez.

Orain ainbeste eskatzen dan naitasun bat (batez ere emen Amerikan) ezin dezakegu utzi ixilik, una ontan, eta au da: Urtzi dei edo Vocacionetako "Vox Populi" da Euskal-Errian mintzatzen edo ia orain arte mintzatu dan tokietan izaten dirala Urtzi'ren dei edo Vocacio ugarienak bai Apaiz, Lekaide edo Lekaine'tarako.

Ele zoragarria azkenetan dala esaten dute. Gure menderatzailleak bai España edo Prantziak batere errukiren izpirik gabe ito nai gaituzte. Gure izkera iorian, aldizkariren bat sortzen bada eta indar apur bat artzen badu, laister asten dira etsaiak igitzen aiek ondatzeko, uka ezin leiskianak or daude agirian: "ZERUKO ARGIA", "OLERTI" eta "EUZKO-GOGOA", azkeneño oni baimenik etzioten eman Ego Euzkadin azaltzeko, oek dira ale batzuek bakarrik beste deabrukeri askoren artean gure ele ederrak bururik jaso es dezan. Baita ere Euzkadi'ra igorritzen diran Gotzaiak aspaldidanik geienak erdaldunak izaten dira, ez dago esan zearrik ze asmokiñ bialtzen diran Gotzai auek, ziur gauae euskaldunak euskaldunago izan ditezen ez dela izango beintzat.

Nai genduke onbidezko begirapenak sor erazi nai dizuela Guziz-Aldun Goiko Jaun Onak erri berezko menderatuentzako.

Apaltasun aundiz agurtzean zueri biotz sutzuz eskaera egiten diogu Jaungoikoari zuen asmo onak aurrera emateko kemena izan dezazuten".

Artza'tar Andoni

IDAZKARIA

Montoya'tar Bedita

... LENDAKARIA

EGUNETIK EGUNERA

Madrid eta bere inguruetatik datozen berriak ez dira guztik txarrak. Onekin ez esan nai oso onak dirala.

Berri oriek diotenez kanpora begira asia da Franko. New York ko izparringi batek esan dunez, Filipinas'etarako asmoetan dabillela Franko esan leike.

Ortaz, Madrid eta bere inguruak utzi, eta Filipinas'etara joango litzake Franko. Nola joango da joatekotan ere esku-utzik?

Aldez aurretik 500.000 dolar jarri ditu España'ko ditadoreak Filipinas'ko Presidentaren izenean berarentzat etxeak eta abar erosi al izan ditzan.

Zearo dirututa dago Franko. 500.000 dolar ez ditu orrela nornaik kanpora bidaltzen. Franko etzan ba aberatsa...

Ez, etzan aberatsa. Urteak dirala, guztiz adarrarena jo zigun guda sutu zuanean, 15.000 peseta zitun Dña. Carmen Collares'en senarrak gordeta. Ordun 15.000 laurleko, gaur berriz, asteko bakarrik, 500.000 dolar ipiñi ditu Filipinas'etan.

Gaur bai ote daki Franko'k zenbat diru daukan? Diru oriek ez ditu izango ordea lanetik egiñak. Nundik ordun Lapurretatik seguru aski. Seguru aski ez, seguru-seguru.

Oriek, diru oriek, eta beste ainbeste iru bider atera ditzala nai ba du. Eta joan dedilla. Filipinas'etara, inpernura, edo nai dun lekura.

Eta bere zartzaroa pasa dezala lasai. Pasako al du ordea? Ez ote zaizkio egunak ditun ordu guzitan begien aurrean dantzan asiko bera za'a-ta bizia galdu zuten guziak?

Gero berriz, Franko'ren ondoren, Don Juan Exeriko omen da Madrid'en jaun da jabe, bere semeari bideak urratzeko asmoetan.

Zenbaitentzat, agian, berri oriek, berri onak dira. Guretzat ez. Franko joan eta D. Juan etorri. Norek ekarrita? Zuei ez dizue iñork iritzirik eskatu. Neri ere ez. Nork darama ordun D. Juan?

Franko kanporako asmoetan dabillela jakitea pozgarri da. Bere ordez "Caudillo" Don Juan izango dala jakitea penagarri da. Guretzat berdin. Don Juan'ekin arrika asi bearrean izango gera.

EUSKAL - NAZIONALISMUARI BURUZ

EUSKAL NAZIONALISMUA ETA GIZARTEAREN REVOLUZINOA

HOBEKO GARRALDARRAK

Beraz Lege-Zaharra, nazionalista "jelzale ahi eta iesuitatzar batzuen traizinoa dela-ta, heien kollaborazino ahalkegarria dela-ta konservatukeriaren itzalgua bilhakatu denaz gero, egun hunelako ideala ezta gehiago gauza hirietan bizi den euskal populuarentzat.

36'garren urtheko gerlak' kalterik asko ekharri zeraukun, berhain gure herriaren arerioek bezuza bat eman deraukute, euskal ideala bortxa progressisten frontean iphini dutelakotz. Hargatik, egun euskal-nazionalismua ' ethorkizuna duten ideietan dago. Egokera huntarat, batzuetan, euskal abertzalerik asko iakiteke, nahi-eta-ez, ethorri dira, bainan egun nazionalista izaiteak, progressu sozialaren alde egoitea representatzen du. Lehenago' euskal nazionalismuari haren explotatzekotz eta gozatzekotz ethorri zitzaizkionak aspaldidanik Francoren regimearen kollaboratoreak dirade. Hunelakoak baitira iujatu behar dira. Ex-nazionalista hauk eztira gehiago *euskaldunak* ere. Euskalherriaren etsaiak dira. Hastandu behar ditugu, arbuiatu behar ditugu; iente haur sarratsa baita polizia torturatzaile naskagarrienak baino nakhaizgarriagoak dira.

Herri iazarrien revoluzino nazionalek, oraingoetan Cubarenak eta Argeliarenak, eta iragan-aldia Irlandarenak ere bai, bethi triunphatu unkhan dute, ideia nazionalari' populuaren aspirazino legezkoak iratxekiten zekitelako. Euskal populuaren reivindikazino legezko hauk eztira kapitalisten eta bankadunen aspirazinoak, zeinek Francoren regimeaz ahalkerik gabe kollaboratzen baitute eta solik euskal Statu bat ezer gertha litekeien possibilitaterako ukhan nai baitute. Euskalherriko populua, inmigratua eta autokhthonua Asturuko kommunitate bat *dira eta hunen bidez euskal Aberria eratzen* da. Asturuko Kommunitate haur' **Zaspiak-bat** gathazka-hitzaz symbolizatzen eta signifikatzen den aberriaren xedarrapen baino handiagoa da, dudarik gabe kommunitate huntan Herrigoia, Aragoi, Bureba eta Zantander legozke, eta ezein ere euskaldunek lurralde hauk reklamatu beha dituzte.

IV. — EUSKAL NAZIONALISMUA FRANTSES EUSKAL-HERRIAN

Ipharraldeko Euskalherriko lehen liliak ninikatu ziren bertzaldetik euskaldungoaren txinpart sutsuak lehendanik erori zirenean, haur 1933 garren urthean zen. *Hunla Aitzina* izeneztatu movimendu iaio zen.

Geroago, Hispaniako gudu zivilea ethorri zen, bai eta Munduaren gerla ere. Epokha huntan zenbait euskal nazionalista alemanoekin kollaboratu baitzuten, alliatuen gurenda zela-ta, Frantzian berphiztu zen xauvinismuaren gaitik persequituak izan ziren.

Bainan Alemania eta Frantziaren arte rekonciliazinoaren gibelean persekuzinoaren basisa berez ezereztu dateke. Kontinenteko Euskalherriko nazionalismuak sentzu batzuetan bertzaldeko abertzaletasunaren erroreak erraz zentzarazteko possibilitatea ledukake.

Azkenengo denpora hoitan Burdigalako euskal studiantetan **Enbata** izeneko movimendu berria sorthu da, zeinak alderdirik izan ezlukeien, movimendu nazional bat baizen. Heien helburu euskal aberriaren askatasuna lizateke. Hortakotz bertzaldeko nazionalisten "Jaungoikoa eta Lege-Zaharra" hitza hastantzen dute. Euskal nazionalisten aburu haur bietan onesgarria da, zeren eta *Ipharraldeko Euskalherria agrikola ta oikonomikokiro* atzeratua baita, eta lurralde haukietan populuagan kleruak edonolako othere tyraniko bat exekutatzen baitu.

Halabainan Hegoialdeko nazionalismua progressuaren idealetan dagoelarik' Ipparraldekoa, eta behar bada, Gobernu zentralista eta iakobindiarren kontrako reakzinoa bezela' tendentzia reakzionarietan egon liteke. Ethorkizunean ikhusiren dugu bertzaldetikako influentzia handiagoa denz ala euskal nazionalistak Ipharraldeko Euskalherrian reakzionarietan gehiago ta are gehiago ioanen direnz. Studianten movimendu haur' orain berri-berriegi da hari buruz ezein ere ephai deffinitivurik emaitekotz.

Berhain' Euskal nazionalismuaren "arbol malatoaren" Philosophia zelakoaren errorea, "Zazpirak-Bat" delako hitzaz symbolizat*zen den konservaturismua* onhartu baitute, movimendu hunen ekhintza deffensarat biltzen da, et Euskalherriaren xederrapen batetaz Ipharraldeko Euskalherriaren ideala ' hirendua bezala agetzen zaiku. Euskal nazionalismuak ukhan behar zukeien attakeko idarrik eztaduka; eztu ethorzizunik, eta edozein herrik ekhintza nazionala bezala ukhan behar zukeien emankizuna hegalik gabe mundurat ethorri da.

Herzdura haur Ipharraldean, Hegoialdean baino perilosoagoa da, frantsez Euskalherriak' izeneraen digneak lirateken hiririk asko ezpaitîtu, Donibane Lohintzun eta D. Garazi iondako mendeetan baino azkozaz ttikiagoak baitira orain; Baiona' batzuen aburuz ere kaskoina baita, bere iathorrian euskalduna izan arren. Beraz, baionarrik asko euskaldungoaren etsaietan dagoz. Egi*tamu haur deithoragarria da, zeren euskal*dunak ber hek askotan obendunak baitira. Eta nola Hegoiko Euskalherrian "arbol malatoa" ren Philosophiaren gatik euskaldunek" etasiek konquistatu zituzten herritarrak' etsaiaren eskuetan utzi baitzituten, halatan ere Ipharraldeko Euskalherrian, gibelatze derrotistaren eta konservaturismuaren spiritu huntatik' euskaldunak bethi geratu dira azken gibelatzearen ondoan zeduzkaten lurrez.

Hunla egun Ipharraldeko Euskalherrian hiri importanterik eztugula ikhusi behar dugu, zeren hek guztiak etsaien eskuetan erori baitira. Bainan kasu huntan euskaldunek' gerrillen gudalariek bezala egin behar zuteken, zeinek beren munizionamenduaren elikatzea bethi etsaienganik hartzen baitute: nola beren attaken egiteko bertze possibilitarerik eztutenek beuren equipamendua etsaien ganik artu behar baitute, halatan ere, euskaldunek Iharraldeko Euskalherriaren enguruetan Euskalherriare ioera duten hiriak, eta euskaldungoan sarthu nahi luketen lurraldeak, batez ere atzerrian euskaldunak direla dioitenak beretzakotu behar zituketen. Huntan, behar bada, exemplu bezala Biarritz legoke. Hiri haur, berez etzen euskalduna kaskoina baizen, bainan euskaldungoaren folklorismuaren bidez, euskal interesen orbitan erakharri baitzen, orain gauzarik askotan Ipharraldeko euskaltzaletasunaren burua bilhakatu da.

(jarraituko du.).